Kontratuen erregistroa 2023ko abenduan

KONTRATATUTAKO PERTSONAK

2023ko abenduan 39.543 pertsona kontratatu dira, joan den urteko abenduan baino 1.214 gutxiago (% 3ko beherakada). Azaroarekin alderatuta ere murriztu egin da kontratatutako pertsonen kopurua; 5.668 pertsona gutxiago kontratatu dira,% 12,5eko beherakada, hain zuzen ere.

• SEXUA

Hilabete honetan 18.744 gizonezko eta 20.799 emakumezko kontratatu dira. Aurreko urteko datuarekin alderatuta, bai emakume zein gizonen kontratazioa murriztu egin da; emakumezkoen kasuan murrizketa txikiagoa da, % 2,5eko jaitsiera izan baitu (-530 emakume) gizonezkoen % 3,5eko beherakadaren aldean (- 684). Hil arteko konparaketan ere gehiago murriztu da gizonen kasuan: % 14,6ko beherakada, emakumeen % 12,5aren aldean (-3.192 gizon eta -2.476 emakume).

• ADINA

Kontratatutako pertsonen batez besteko adina 36,06 da, eta baxuagoa da gizonena (35,78) emakumezkoena baino (36,30). Arabakoak dira kontratatutako pertsona gazteenak (35,60), eta Bizkaikoak, aldiz, zaharrenak (36,44).

Kontratatutako langile gazteenak, batez beste, laguntza teknikariak dira; horien batez besteko adina 31 urtekoa da. Zaharrenak, berriz, zuzendaritza lanetan kontratatutakoak dira; batez besteko adina 43tik gorakoa da. Lanaldi partzialean kontratatutakoak lanaldi osoan kontratatutakoak baino gazteagoak dira (35 eta 36,70 urte, hurrenez hurren). Aldea haundiagoa da sexuaren arabera; lanaldi partzialeko emakumeak zaharragoak dira 35,61 urte baitituzte gizonezkoen 33,80aren aldean. Kontratuaren iraupenaren inguruan, aldi baterako kontratatutako pertsonak kontratu mugagabeak izan dituztenak baino zaharragoak dira (36,12 vs 35,88).

• JATORRIA

2023ko abenduan kontratatutako pertsonen % 19,8k atzerriko nazionalitatea dute; joan den urteko ehunekoa baino 2,1 puntu 2,1 altuagoa. Kontratatutako pertsona atzerritarren % 56,9k Latinoamerikako herrialde bateko nazionalitatea du, % 14k Afrikako iparraldeko herrialde batekoa, % 9,9k Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialderen batekoa, % 6,8k Europako Erkidegokoa ez den herrialderen batekoa, % 5,8 k Asiako herrialderen batekoa eta, azkenik, % 5,6k Europako Erkidegoko herrialderen batekoa. Bertakoak atzerritarrak baino gazteagoak dira (36,03 eta 36,15 urte, hurrenez hurren). Kontratazio-bolumen jakin bat duten atzerritarren artean, Afrika iparraldekoak dira gazteenak (34,69 urte) eta Europako Erkidegoko herrialderen batekoak, zaharrenak (37,73 urte).

Azken hilabetean, kontratazio-maila esanguratsua duten jatorri guztietako pertsonen kontratazioak egin du behera. Balio absolutuetan gehien murriztu den pertsona-taldea Latinoamerikakoa da: 296 pertsona gutxiago kontratatu dira eta % 6,2ko murrizketa izan dute; balio erlatiboetan, berriz, beherakadarik handiena Europar erkidegoko herrialderen batetik etorritakoen taldeak jasan du, % 22,3 jaitsi baitira (-126 pertsona).

Urteko erlazioari dagokionez, igoerarik handiena, bai balio absolutu zein erlatiboetan, Latinoamerikatik etorritako pertsonen taldean gertatu da, 645 pertsona gehiago eta % 16,9ko gorakadarekin. Beste muturrean, jaitsierarik handiena, bai balio absolutu zein erlatiboetan, Europako Erkidegoko ez den herrialderen batetik etorritako pertsonen taldean izan da, % 8,1eko murrizketa izan du (47 pertsona gutxiago kontratatu dira).

• PRESTAKUNTZA-MAILA

Kontratatutako pertsonen % 43k oinarrizko prestakuntza maila du –gehienez ere derrigorrezko hezkuntza amaitu du–, % 23,7k batxilergoko ikasketak egin ditu, % 16,3k LH-koak eta % 16,3k unibertsitateko ikasketak.

Hileko erreferentzian, jaitsi egin dira ikasketa-profil guztietako pertsonen kontratuak. Balio absolutuetan, gehien murriztu den profila oinarrizko ikasketena da, 1.843 pertsona gutxiago kontratatu baitira azaroaren aldean (% 9,8ko beherakada ehunekotan); balio erlatiboetan, murrizketarik handiena unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonen kontratazioan gertatu da, % 18ko beherakadarekin (1.408 pertsona gutxiago kontratatu dira).

Urteko erreferentzian, murriztu egin dira ere ikasketa-profil guztietako kontratatuak batxillergokoak izan ezik; %6 hazi dira (535 pertsona gehiago kontratatu dira). Jaitsierarik handiena, balio absolutuetan, derrigorrezko ikasketak dituzten pertsonen kontratazioan gertatzen da (-767 pertsona, % 4,3 gutxiago); balio erlatiboetan, aldiz, jaitsiera handiena unibertsitate-ikasketak dituztenen artean gertatu da, % 7,5 jaitsi baita (519 pertsona gutxiago).

KONTRATUEN KOPURUAK

2023ko abenduan zehar kontratazio kopurua 54.415 izan da EAEn, horietatik 11.812 (% 21,7) mugagabeak izan dira. Balio handia izaten jarraitzen du da azken urteetako bilakaerarekin alderatuta, baina 2023ko kopurua baxuena da. Datu honek, 2022ko joera berresten du eta esan daiteke iaz onartutako lan-erreformak ekarri duen kalitate handiagoko kontratazioren islada dela. Kontratu mugagabea izan duten gizonezkoen kopurua haundiagoa da emakumezkoen aldean (% 23,7 eta % 20 hurrenez hurren).

Kontratazioa % 13,9 murriztu da aurreko hilabetearekiko (8.748 kontratu gutxiago); aurreko urtearekin alderatuta ere, % 6,2 jaitsi da (3.574 kontratu gutxiago).

• JARDUERA EKONOMIKOA

Joan den hilabetearen aldean, kontratazioak behera egin du jarduera gehienetan. Jaitsierarik handienak manufaktura-industrian (-1.323), hezkuntzan (-1.315) eta osasun jardueretan (-1.235) izan dira. Aldiz, administrazio publikoan izan da hazkunderik handiena, 635 kontratu gehiagorekin.

Iazko datuekin alderatuta, kontratazioak behera egin du jarduera gehienetan. Jaitsiera nabarmenenak profil hauen kontratazioan gertatu dira: osasuna (-2.239), merkataritza (-577) eta garraioa (-449). Kontratazio gehien hazi diren jarduerak, aldiz, ostalaritza (+678) eta administrazio publikoa (+210) dira.

Kontratuen erregistroa 2023ko abenduan

• OKUPAZIOA

Hil arteko konparaketan, kontratazioak behera egin du profil guztietan. Beherakada handiena, bai balio absolutuetan zein balio erlatiboetan, zientzietako teknikarien okupazioan gertatu da, % 33,8ko jaitsierarekin (3.523 kontratu gutxiago).

Iazko hilabete beraren aldean, kontratazioak behera egin du okupazio guztietan, lehen maila-ko kualifikatuetan izan ezik, non 13 kontratu gehiago sinatu baitira. Beherakadarik handienak kualifikatu gabekoen (-1.415), laguntza-teknikarien (-1.039) eta industriako kualifikatuen (-609) kontratazioan izan dira.

• KONTRATAZIO-MOTA

Hilabete honetan, aurreko hilabeteetan bezala, kontratu mugagabeen portzentaia handia nabarmendu behar da, 2022ra arte % 10etik behera egon ohi baitziren. Tasa horiek ohikoak dira lan-erreformaren ondoren. Badirudi kontratu mugagabeen sendotasuna handitzea dakarrela, izan ere, historikoki, urtean zehar kontratu mugagabeen kopuru esanguratsu bat sinatu arren, ez zuten lortzen aldi baterako kontratua zuten okupatuen kontratu-harremana finkatzea.

2023ko abenduan sinatutako kontratuen % 37,8 lanaldi partzialekoak dira, % 47,2 emakumeen kasuan eta % 27,3 gizonenan. Kontratazio mota horren arazorik handiena da, gehienbat, nahigabekoa dela, eta agerian uzten du ezarritako kontratu-harremanaren kalitate eskasa. Kontratu mugagabeen % 30,5 lanaldi partzialekoak dira.

Honako hauek dira lanaldi partzialeko kontratazioaren ehuneko handiena duten jarduera ekonomikoak: ostalaritza (% 64,8), administrazioa jarduerak (% 49,8) eta merkataritza (% 48,5). Okupazio-profilen arabera, lanaldi partzialeko kontratazioan ehuneko handiena izan duen profila zerbitzuetako langileena izan da (% 54,4), eta gutxiena, lehen sektoreko kualifikatuen profila (% 4,9).

• LURRALDE HISTORIKOAK

Lurralde historikoei dagokionez, sinatutako kontratuen lanpostuen % 20,3 Araban dago, % 49,8 Bizkaian eta gainerako % 29,8 Gipuzkoan.

Hilabete honetan, Araban 2.121 kontratu gutxiago sinatu dira (% 16,1eko jaitsiera); Gipuzkoan 2.466 kontratu gutxiago sinatu dira (% 13,2ko beherakada) eta, Bizkaian, azkenik, 4.161 kontratu gutxiago egin dira (-%13,3).

Iazko datuekin alderatuta, Araban 912 kontratu gehiago sinatu dira (% 9ko igoera), lurralde hau da igoera izan duen bakarra; Gipuzkoan, berriz, % 9,1 jaitsi da (1.633 kontratu gutxiago); Bizkaian, azkenik, 2.853 kontratu gutxiago sinatu dira, hau da, % 9,5eko beherakada.

• BESTEREN ZERBITZUAN JARTZEKO KONTRATUAK (ABLE)

2023ko abenduan sinatutako kontratuen % 24,8 aldi baterako laneko enpresen bitartez egin dira. ABLEen bitartez egindako kontratazioa askoz ohikoagoa da gizonetan emakumeetan baino. Gizonetan, kontratuen % 33,8 horrelako enpresa batek egindakoa izan da, eta emakumeetan, berriz, kontratazioen % 16,7 bakarrik egin du ABLE batek.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, aldi baterako laneko enpresen bitartez egindako kontratuak % 9,2 gutxitu dira; 2022ko abenduarekin alderatuta, % 0,8 murriztu dira.



Kontratuen erregistroa 2023ko abenduan

		Abe-2023	Aza-2023	Abe-2022	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Mota	Mugagabea	11.812	15.455	12.345	-3.643	-23,57	-533	-4,3
	Aldi baterakoa	42.603	47.708	45.644	-5.105	-10,70	-3.041	-6,7
	Guztira	54.415	63.163	57.989	-8.748	-13,85	-3.574	-6,2
	Mugagabeen %	21,7%	24,5%	21,3%	-2,76		0,42	
Sexua	Gizona	25.652	30.014	27.206	-4.362	-14,53	-1.554	-5,7
	Emakumea	28.763	33.149	30.783	-4.386	-13,23	-2.020	-6,6
	Guztira	54.415	63.163	57.989	-8.748	-13,85	-3.574	-6,2
	Emakumeen %	52,9%	52,5%	53,1%	0,38		-0,23	
Mugagabea	Gizona	6.069	8.015	6.354	-1.946	-24,28	-285	-4,5
	Emakumea	5.743	7.440	5.991	-1.697	-22,81	-248	-4,1
	Guztira	11.812	15.455	12.345	-3.643	-23,57	-533	-4,3
Aldi baterakoa	Gizona	19.583	21.999	20.852	-2.416	-10,98	-1.269	-6,1
	Emakumea	23.020	25.709	24.792	-2.689	-10,46	-1.772	-7,1
	Guztira	42.603	47.708	45.644	-5.105	-10,70	-3.041	-6,7
Guztira	Gizona	25.652	30.014	27.206	-4.362	-14,53	-1.554	-5,7
	Emakumea	28.763	33.149	30.783	-4.386	-13,23	-2.020	-6,6
	Guztira	54.415	63.163	57.989	-8.748	-13,85	-3.574	-6,2
Mugagabeen tasa	Gizona	23,7%	26,7%	23,4%	-3,05		0,30	
	Emakumea	20,0%	22,4%	19,5%	-2,48		0,50	
	Guztira	21,7%	24,5%	21,3%	-2,76		0,42	
Lanaldi partziala	Mugagabea	3.603	4.857	4.050	-1.254	-25,82	-447	-11,0
	Aldi baterakoa	16.964	18.215	17.298	-1.251	-6,87	-334	-1,9
	Beste batzuk	33.848	40.091	36.641	-6.243	-15,57	-2.793	-7,6
	Guztira	54.415	63.163	57.989	-8.748	-13,85	-3.574	-6,2
	LP tasa	37,8%	36,5%	36,8%	1,27		0,98	
Lanaldi partziala	Gizona	6.992	7.741	7.043	-749	-9,68	-51	-0,7
	Emakumea	13.575	15.331	14.305	-1.756	-11,45	-730	-5,1
	Guztira	20.567	23.072	21.348	-2.505	-10,86	-781	-3,7
	Gizonen tasa	27,3%	25,8%	25,9%	1,47		1,37	
	Emakumeen tasa	47,2%	46,2%	46,5%	0,95		0,73	
	Tasa guztira	37,8%	36,5%	36,8%	1,27		0,98	
Prestakuntzakoak	Prestakuntzakoak	80	34	136	46	135,29	-56	-41,2
	Beste batzuk	54.335	63.129	57.853	-8.794	-13,93	-3.518	-6,1
	Guztira	54.415	63.163	57.989	-8.748	-13,85	-3.574	-6,2
	Prestakuntzakoak (%)	0,1%	0,1%	0,2%	0,09		-0,09	
L. historikoa	Araba	11.065	13.186	10.153	-2.121	-16,09	912	9,0
	Bizkaia	27.108	31.269	29.961	-4.161	-13,31	-2.853	-9,5
	Gipuzkoa	16.242	18.708	17.875	-2.466	-13,18	-1.633	-9,1
	EAE	54.415	63.163	57.989	-8.748	-13,85	-3.574	-6,2
Gizonak	Lehen sektorea	305	385	270	-80	-20,78	35	13,0
	Erauzketa-industriak	5	3	6	2	66,67	-1	-16,7
	Manufaktura-industriak	4.773	5.791	5.149	-1.018	-17,58	-376	-7,3
	Energia	6	3	10	3	100,00	-4	-40,0
	Ura	381	404	332	-23	-5,69	49	14,8
	Eraikuntza	1.164	1.581	1.395	-417	-26,38	-231	-16,6
	Merkataritza	2.630	3.049	2.881	-419	-13,74	-251	-8,7
	Garraioa	3.732	4.025	4.103	-293	-7,28	-371	-9,0
	Ostalaritza	2.805	3.072	2.654	-267	-8,69	151	5,7
	Informazioa eta komunikazioa	1.269	1.872	1.343	-603	-32,21	-74	-5,5
	Finantzak eta aseguruak	117	110	114	7	6,36	3	2,6
	Higiezinen sektorea	18	25	43	-7	-28,00	-25	-58,1
	Zientifikoak eta teknikoak	567	830	598	-263	-31,69	-31	-5,2
	Administraziokoak	2.550	3.271	2.642	-721	-22,04	-92	-3,5
	Administrazio publikoa	899	422	776	477	113,03	123	15,9
	Hezkuntza	782	1.087	768	-305	-28,06	14	1,8
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	1.300	1.701	1.880	-401	-23,57	-580	-30,9

Kontratuen erregistroa 2023ko abenduan

		Abe-2023	Aza-2023	Abe-2022	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Arte- eta jolas-jarduerak	1.762	1.867	1.731	-105	-5,62	31	1,8
	Beste zerbitzu batzuk	508	438	422	70	15,98	86	20,4
	Etxeetako jarduerak	78	78	89	0	0,00	-11	-12,4
	Lurraldez kanpoko erakundeak	1	0	0	1		1	
	Guztira	25.652	30.014	27.206	-4.362	-14,53	-1.554	-5,7
Emakumeak	Lehen sektorea	74	89	60	-15	-16,85	14	23,3
	Erauzketa-industriak	3	0	2	3		1	50,0
	Manufaktura-industriak	1.747	2.052	1.763	-305	-14,86	-16	-0,9
	Energia	3	10	9	-7	-70,00	-6	-66,7
	Ura	49	39	44	10	25,64	5	11,4
	Eraikuntza	110	156	128	-46	-29,49	-18	-14,1
	Merkataritza	3.994	4.629	4.320	-635	-13,72	-326	-7,5
	Garraioa	1.065	1.219	1.143	-154	-12,63	-78	-6,8
	Ostalaritza	4.740	5.550	4.213	-810	-14,59	527	12,5
	Informazioa eta komunikazioa	1.002	1.344	977	-342	-25,45	25	2,6
	Finantzak eta aseguruak	149	162	156	-13	-8,02	-7	-4,5
	Higiezinen sektorea	45	62	42	-17	-27,42	3	7,1
	Zientifikoak eta teknikoak	649	911	728	-262	-28,76	-79	-10,9
	Administraziokoak	3.578	3.992	3.845	-414	-10,37	-267	-6,9
	Administrazio publikoa	807	641	720	166	25,90	87	12,1
	Hezkuntza	2.070	3.080	2.093	-1.010	-32,79	-23	-1,1
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	5.385	6.219	7.044	-834	-13,41	-1.659	-23,6
	Arte- eta jolas-jarduerak	1.359	1.244	1.297	115	9,24	62	4,8
	Beste zerbitzu batzuk	733	680	779	53	7,79	-46	-5,9
	Etxeetako jarduerak	1.199	1.068	1.420	131	12,27	-221	-15,6
	Lurraldez kanpoko erakundeak	2	2	0	0	0,00	2	
	Guztira	28.763	33.149	30.783	-4.386	-13,23	-2.020	-6,6
Guztira	Lehen sektorea	379	474	330	-95	-20,04	49	14,8
	Erauzketa-industriak	8	3	8	5	166,67	0	0,0
	Manufaktura-industriak	6.520	7.843	6.912	-1.323	-16,87	-392	-5,7
	Energia	9	13	19	-4	-30,77	-10	-52,6
	Ura	430	443	376	-13	-2,93	54	14,4
	Eraikuntza	1.274	1.737	1.523	-463	-26,66	-249	-16,3
	Merkataritza	6.624	7.678	7.201	-1.054	-13,73	-577	-8,0
	Garraioa	4.797	5.244	5.246	-447	-8,52	-449	-8,6
	Ostalaritza	7.545	8.622	6.867	-1.077	-12,49	678	9,9
	Informazioa eta komunikazioa	2.271	3.216	2.320	-945	-29,38	-49	-2,1
	Finantzak eta aseguruak	266	272	270	-6	-2,21	-4	-1,5
	Higiezinen sektorea	63	87	85	-24	-27,59	-22	-25,9
	Zientifikoak eta teknikoak	1.216	1.741	1.326	-525	-30,16	-110	-8,3
	Administraziokoak	6.128	7.263	6.487	-1.135	-15,63	-359	-5,5
	Administrazio publikoa	1.706	1.063	1.496	643	60,49	210	14,0
	Hezkuntza	2.852	4.167	2.861	-1.315	-31,56	-9	-0,3
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	6.685	7.920	8.924	-1.235	-15,59	-2.239	-25,1
	Arte- eta jolas-jarduerak	3.121	3.111	3.028	10	0,32	93	3,1
	Beste zerbitzu batzuk	1.241	1.118	1.201	123	11,00	40	3,3
	Etxeetako jarduerak	1.277	1.146	1.509	131	11,43	-232	-15,4
	Lurraldez kanpoko erakundeak	3	2	0	1	50,00	3	
	Guztira	54.415	63.163	57.989	-8.748	-13,85	-3.574	-6,2
Gizonak	<>	1	0	0	1		1	
	Zuzendaritza	77	87	86	-10	-11,49	-9	-10,5
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	2.605	4.189	2.510	-1.584	-37,81	95	3,8
	Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak	2.926	3.313	3.506	-387	-11,68	-580	-16,5
	Administrazioko langileak	1.305	1.498	1.339	-193	-12,88	-34	-2,5
	Zerbitzuetako kualifikatuak	5.874	6.432	5.794	-558	-8,68	80	1,4

Kontratuen erregistroa 2023ko abenduan

		Abe-2023	Aza-2023	Abe-2022	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Oinarrizko kualifikatuak	133	156	116	-23	-14,74	17	14,7
	Industriako kualifikatuak	2.266	2.841	2.826	-575	-20,24	-560	-19,8
	Operadoreak	3.411	3.640	3.419	-229	-6,29	-8	-0,2
	Kualifikatu gabeak	7.054	7.858	7.610	-804	-10,23	-556	-7,3
	Guztira	25.652	30.014	27.206	-4.362	-14,53	-1.554	-5,7
Emakumeak	<>	0	0	0	0,00		0,00	
	Zuzendaritza	52	60	53	-8	-13,33	-1	-1,9
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	4.299	6.238	4.486	-1.939	-31,08	-187	-4,2
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	2.319	2.342	2.778	-23	-0,98	-459	-16,5
	Administrazioko langileak	2.100	2.541	2.284	-441	-17,36	-184	-8,1
	Zerbitzuetako kualifikatuak	12.049	13.437	12.310	-1.388	-10,33	-261	-2,1
	Oinarrizko kualifikatuak	10	8	14	2	25,00	-4	-28,6
	Industriako kualifikatuak	284	370	333	-86	-23,24	-49	-14,7
	Operadoreak	609	716	625	-107	-14,94	-16	-2,6
	Kualifikatu gabeak	7.041	7.437	7.900	-396	-5,32	-859	-10,9
	Guztira	28.763	33.149	30.783	-4.386	-13,23	-2.020	-6,6
Guztira	<>	1	0	0	1		1	
	Zuzendaritza	129	147	139	-18	-12,24	-10	-7,2
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	6.904	10.427	6.996	-3.523	-33,79	-92	-1,3
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	5.245	5.655	6.284	-410	-7,25	-1.039	-16,5
	Administrazioko langileak	3.405	4.039	3.623	-634	-15,70	-218	-6,0
	Zerbitzuetako kualifikatuak	17.923	19.869	18.104	-1.946	-9,79	-181	-1,0
	Oinarrizko kualifikatuak	143	164	130	-21	-12,80	13	10,0
	Industriako kualifikatuak	2.550	3.211	3.159	-661	-20,59	-609	-19,3
	Operadoreak	4.020	4.356	4.044	-336	-7,71	-24	-0,6
	Kualifikatu gabeak	14.095	15.295	15.510	-1.200	-7,85	-1.415	-9,1
	Guztira	54.415	63.163	57.989	-8.748	-13,85	-3.574	-6,2
ABLE	Gizonak	6.333	7.070	6.637	-737	-10,42	-304	-4,6
	Emakumeak	3.478	3.737	3.251	-259	-6,93	227	7,0
	Guztira	9.811	10.807	9.888	-996	-9,22	-77	-0,8
Pertsona-kopurua	Gizonak	18.744	21.936	19.428	-3.192	-14,55	-684	-3,5
	Emakumeak	20.799	23.275	21.329	-2.476	-10,64	-530	-2,5
	Guztira	39.543	45.211	40.757	-5.668	-12,54	-1.214	-3,0
	Derrigorrezko hezkuntzako ikasketak	17.023	18.866	17.790	-1.843	-9,77	-767	-4,3
	Batxilergoa	9.385	10.796	8.850	-1.411	-13,07	535	6,0
	LHko ikasketak	6.455	7.464	6.875	-1.009	-13,52	-420	-6,1
	Unibertsitate-ikasketak	6.408	7.816	6.927	-1.408	-18,01	-519	-7,5
	Atzerritarra	7.842	8.698	7.239	-856	-9,84	603	8,3
	Bertakoa	31.701	36.513	33.518	-4.812	-13,18	-1.817	-5,4
	<>	18	21	21	-3	-14,29	-3	-14,3
	Aberrigabea	60	49	66	11	22,45	-6	-9,1
	Europako Erkidegoa	438	564	420	-126	-22,34	18	4,3
	Erkidegokoa ez den Europa	530	671	577	-141	-21,01	-47	-8,1
	Txina	85	85	64	0	0,00	21	32,8
	Japonia	3	5	4	-2	-40,00	-1	-25,0
	Asiako beste herrialde bat	366	440	409	-74	-16,82	-43	-10,5
	Saharaz hegoaldeko Afrika	775	875	735	-100	-11,43	40	5,4
	Afrikako iparraldea	1.094	1.216	1.115	-122	-10,03	-21	-1,9
	Ipar Amerika	11	11	11	0	0,00	0	0,0
	Erdialdeko eta Hego Amerika	4.461	4.757	3.816	-296	-6,22	645	16,9
	Ozeania	1	4	1	-3	-75,00	0	0,0
	Atzerritarrak guztira	7.842	8.698	7.239	-856	-9,84	603	8,3